

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Oinarriak onartzea elkarteei 2017ko dirulaguntzak emateko, kultura, kirol eta euskara arloetan

Korporazioak, 2017ko martxoaren 7an egindako ohiko bilkuran, onartu egin zituen elkarteei dirulaguntzak emateko oinarriak, kultura, kirol eta euskara arloetan, eta honela geratu dira idatzita:

Berariazko ordenantza, dirulaguntzak emateko kultura, euskara eta kirol arloetan

1. artikulua. Dirulaguntzaren xedea

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen helburua da ondorengo proiektu eta jardura hauek finantzatzea, bai eta zenbait xede eta irizpide ezartzea ere herritarrei eta entitateei berdintasun, gardentasun, norgehiagoka, objektibitate, emakume eta gizonen berdintasun eta bereizkeriarik eza printzipioak bermatzeko, udal jarduna osatze aldera:

Kultura arloan:

- 1) Hirugarren adinekoentzat: arte trebakuntza eta etengabekoa, aisia eta astialdiko jarduerak, bidaiak eta txangoak, etab.
- 2) Ume eta/edo gazteentzako hezkuntza, aisia eta astialdikoak.
- 3) Kultura ekimenak, jarduerak eta programak, eta arte trebakuntza.
- 4) Materiala erosteko, arte elkarte amateurrentzat: instrumentu materiala, partiturak; antzerkirako materiala, jantziak, etab.
- 5) Ikuskizunak antolatzeko eta egiteko.
- 6) Kultura bisitak egiteko.
- 7) Albisteen edizio idatziak edo euskarri digitalekoak sustatu eta garatzeko.
- 8) Begiraleak edota animatzaileak trebatzeko programetan parte hartzeko bekak edo laguntzak: haurrei, gazteei, hirugarren adinekoei,... begira

Euskara arloan:

1. Euskara ikasteko bekak.
2. Herriaz gaindiko proiektuak finantzatzeko.

Kirol arloan:

1. Kirol jardueren programetarako.
2. Kirol ekitaldiak antolatzeko eta egiteko.
3. Oinarrizko kirola sustatzeko.
4. Goi mailako kirolarientzako.

Jarduerak finantzatzeko laguntzak dirulaguntza izaera izango dute, eta honakoak izango dituzte arau: azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; eta Kanpezuko Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa.

2. artikulua. Onuradunak

Pertsona fisikoak eta juridikoak izan daitezke onuradunak, baldin eta dirulaguntza ematea arrazoitzen duen egoeraren batean badaude edo oinarri arauetan, deialdian eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, dirulaguntzengan, xedatutakoak betetzen badituzte.

Dirulaguntza eskatu ahal izango dute azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 11. eta 13. artikuluetan eta 3/1997 Foru Arauak, dirulaguntza eta transferentzienak, 5. artikuluan xedatutakoez gain, eskaera egunean betekizun hauek betetzen dituzten entitate eta pertsonak:

- Pertsona juridikoak izanez gero, legez eratuta egongo dira
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik izatea.

Hauek ez dira onuradun izango:

– Laguntza lerro horren aurreko deialdietan emandako dirulaguntzen ondoriozko betebeharrak guztiak bete ez dituzten entitate edo pertsonak.

– Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, IV. tituluan adierazitako arau-hausteren bat dela-eta zehatu diren entitate edo pertsonak, bai eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoak, jasotako kasuetan sartuta daudenak.

Kultura arloan:

Aurreko puntuan azaldutako jardueretakoren bat sustatzen edo egiten duten pertsona fisiko zein juridikoak.

1. puntutik 6.era azaldutako jardueretan, egoitza udalerrian duten elkarteak edo taldeak izango dira onuradun, baldin eta jarduerak Kanpezuko udalerrian egiten badira, kultura bisitaldiak eta txangoak izan ezik.

7. eta 8. puntuetan ezarritakoari dagokionez, onuradunak udalerrian erroldatutako herritarrek izango dira, edo, halako egoeran egon gabe ere, udal intereseko lantzat jotakoak egiten dituztenak, edo, partez edo osoz, nagusiki udalerrian errotuta dauden ondasun eta interesei buruzkoak.

Euskara arloan:

Euskara ikasteko bekei dagokienez: Kanpezun erroldatuta dauden 16 urtetik gorako interesdunak (ikastaroa hasi baino urtebete lehenagotik eta ikastaroak irauten duen bitartean). Pertsona bakoitzak 2016ko irailetik 2017ko abuztura bitartean egiten dituen ikastaro eta barne-tegi adina beka eska ditzake (urria-otsaila, otsaila-ekaina, urria-ekaina, uda, uztaila edo iraila eta barnetegiak).

Barnetegiaren kasuan, irakaskuntza gastuak bakarrik finantzatu dira; ostalua eta mantenua eskatzailearen kontura izango dira.

Herriaz gaindiko proiektuei dagokienez: Udalerrian euskara sustatu eta erabiltzeko jarduerak gauzatzea helburu duten elkarteek eska dezakete dirulaguntza, baldin eta Kanpezu barruan egin eta batez ere udalerriko bizilagunentzat badira.

Kirol arloan:

Aurreko puntuan azaldutako jarduerak sustatzen eta/edo egiten duten pertsona fisiko zein juridikoak.

Egoitza udalerrian duten elkarteak edo taldeak izango dira onuradun, baldin eta 1. artikuluko 1., 2. eta 3. puntuetan adierazitako jarduerak Kanpezuko udalerrian egiten badira.

Inola ere ez dira diruz lagunduko sexua dela-eta, zuzenean edo zeharka, baztertzailak diren jarduerak, otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakume eta gizonen berdintasunerakoa, betez.

Ez dira diruz lagunduko, halaber, erlijioa, etnia, kultura edo gizarte jatorria edo beste zernahi dela-eta zuzenean edo zeharka baztertzen duten jarduerak.

3. artikulua. Aurrekontu zuzkidura

Kultura arloan:

indarrean dagoen aurrekontuan 6.000 euro xedatu dira dirulaguntza hauetarako.

Euskara arloan:

- Bekak: 2.000 euro
- Herriaz gaindiko proiektuak (euskararen aldeko dirulaguntzak): 1.200 euro

Kirol arloan:

indarrean dagoen aurrekontuan 4.500 euro xedatu dira dirulaguntza hauetarako.

Gehieneko laguntza, 600 eurokoa, goi mailako kirolarien laguntzetarako izango da.

Dirulaguntzak borondatezkoak dira, eta aldeztatik jaso izanak ez du berriro jasotzeko eskubiderik sortzen.

4. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura

Dirulaguntza hauen deialdia Alkatetzak egingo du, iragarki taulan eta udalaren web orrian www.campezo.eus argitaratuko den iragarki baten bidez, herriaz gaindiko proiektuen kasuan izan ezik, horiek 2017ko edozein unetan aurkeztu ahal izango baitira.

Eskaerak aurkeztea:

Eskaera, eredu ofizialaren arabera egina (I. eranskina) eta udaleko alkateari zuzenduta, udaleko sarrera erregistroan aurkeztu behar da edo, bestela, 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan jasotako bideetako batetik, hogeita hamar eguneko epean, deialdiaren iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; eskaerarekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

Kultura arloan:

Jardueretarako: jarduera edo programaren proiektua, hauek zehaztuta:

- Helburuak. * Jarduerak eta egutegia. * Gastuen eta diru sarreraren aurrekontu xehatua. * Eskatutako beste laguntzen zerrenda. (II. eranskina) * Legezko ordezkariaren ziurtagiria. * Elkarrekin dirulaguntza eskatzeko hartutako erabakiaren ziurtagiria.

Beketarako:

- Trebakuntza programa. * Zentroaren ziurtagiria, matrikulazioari buruzkoa. * Matrikula ordaindu izanaren frogagiria.

Materiala erosteko, arte elkarte amateurrentzat: instrumentu materiala, partiturak; antzerkirako materiala, jantziak, etab.

- Esku hartzearen definizioa (horren beharra arrazoitu behar da). * Enpresa hornitzaileen aurrekontu bat egin nahi den erosketarako. * Eskatu edota jasotako laguntzen zerrenda. (II. eranskina) * Legezko ordezkariaren ziurtagiria. * Elkarrekin dirulaguntza eskatzeko hartutako erabakiaren ziurtagiria.

Euskara arloan:

Beketarako:

- NANaren fotokopia
- Matrikula ordaindu izanaren frogagiria, bankuak emana.
- Euskaltegian edo beste erakunde ofizial batean matrikulatu izanaren ziurtagiria, euskaltegiak edo erakundeak berak emana. Barnetegietako ikastaroen kasuan, gastuak xehatu behar dira: irakaskuntza gastuak, eta mantenu-ostatu gastuak.
- Kanpezuko Udalak antolatutako ikastaroetan, nahitaezkoa izango da ikaslea gutxienez eskolen ehuneko 75era joan izana egiaztatzen duen txostena, irakasleak egina.
- Gutxienez eskolen ehuneko 75era joan izanaren frogagiria, euskaltegiak edo bestelako erakunde ofizialak emana, edota bertaratze ehuneko hori ezin bada frogatu (horretarako arrazoiak adierazi behar dira: ezinbestekoak izan behar dira eta agirien bidez frogatu behar dira), ikastaroa edo hizkuntza eskakizuna gainditu izanaren egiaztagiria, euskaltegiak edo erakunde eskudunak emana.

- Eskatutako beste laguntzen zerrenda. (II. eranskina)

Herriaz gaindiko proiektuak:

- Jardueraren memoria, azalduta gutxienez norentzat den, edukia, lekua, egunak eta parte hartzaileak.
- Memoria ekonomikoa, aurreikusitako gastu eta diru sarreraren zerrendarekin.
- Eskatutako beste laguntzen zerrenda. (II. eranskina)

Kirol arloan:

Jardueretarako:

Jarduera edo programaren proiektua, hauek zehaztuta:

- Programaren helburuak.
- Jarduerak eta egutegia.
- Gastuen eta diru sarreraren aurrekontu xehatua.
- Legezko ordezkartzaren ziurtagiria.
- Elkarrekin dirulaguntza eskatzeko hartutako erabakiaren ziurtagiria.
- Eskatutako beste laguntzen zerrenda. (II. eranskina)

Goi mailako kirolarientzat:

- Egiten dituen ekintzen memoria.
- Estatuan nahiz nazioarte mailan irabazitako sariak.
- Eskatutako beste laguntzen zerrenda. (II. eranskina)

Eskatzen diren agiriak lehendik udalak badauzka, nola eta ez diren bost urte igaro haien prozedura bukatu zenetik, eskatzaileak ez du nahitaez berriro aurkeztu beharrik izango, baina zehaztu egin behar du agiriak zein egunetan eta zein organo edo bulegotan aurkeztu edo eman ziren.

Eskaerak bide telematikoz aurkeztu ahal izango dira, azaroaren 26ko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezarritako moduan.

Eskaerak ez baditu betetzen ordenantza honetan ezarritako betekizun guztiak, organo eskudunak errekerimendua bidaliko dio interesdunari hamar eguneko epe luzaezinean falta dena aurkeztu edo zuzendu beharrekoa zuzendu dezan, eta ohartaraziko dio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egintzat hartuko dela, aurrez dagokion ebazpena emanda 39/2015 Legeak 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio organoaren buru arloko zinegotzi ordezkaria izango da, eta kideak Kanpezu - Arabako Mendialdeko Kuadrillako gizarte eta kultura animazioko teknikaria eta udalean daude talde bakoitzaren ordezkari bat. Horiek ofizioz egingo dituzte ebazpen proposamena idazteko beharrezko jotzen diren zehazte, ezagutze eta egiaztatze jarduerak guztiak.

Aurkeztutako eskaerak deialdiaren hurrengo artikuluetan ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, instrukzio organoak hasierako proposamena egingo dio udal idazkariari, gehienez 15 eguneko epean txostena egin dezan ebaluazioaren emaitzei buruz eta eskaeren arteko lehenetsunari buruz.

Behin-behineko ebazpen proposamen egingo du instrukzio organoak, behar bezala arrazoi-tua, espediente eta idazkaritza teknikoaren txostena ikusi ondoren.

Organo eskumendunak eman beharreko ebazpena emango du, instrukzio organoak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan ebazpen adierazirik ematen ez bada, entitate edo pertsona interesdunek ezetsizat jo ahal izango dute eskaera.

Ebazpenean, baiezkoa bada, datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko era, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta bete beharreko baldintzak; gainera, onuradunei jakinaraziko zaie, bat etorri 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan jasotakoarekin.

Entitate edo pertsona eskatzaileei dirulaguntza eman ala ukatu zaien jakinaraziko zaie 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan jasotako moduetan.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegi nagusietan, bat etorri zuzenaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 8. artikuluan xedatutakoarekin, jakinarazi eta bi hilabeteko epean. Zuzenean aurkatu ezean, berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin.

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, xedatzen duena betez, behin betiko ebazpenaren jakinarazpen orokorra iragarki taulan eta udalaren web orrian www.campezo.eus egingo da.

5. artikulua. Dirulaguntzak esleitzeko irizpideak

Herriaz gaindiko jarduera eta proiektuetarako:

- Proiektuaren kalitatea eta bideragarritasuna. * Proiektuak udalerraren garapenean eta herritarren ongizatean edukiko duen eragin positiboa. * Proiektuaren originaltasuna. * Esku hartzearen onuradun kopurua, inplikaturako taldeak eta hartzaileak. * Proiektuak gauzatzeko bermeak eta erabilgarri dauden giza baliabideak, baliabide materialak eta baliabide teknikoak. * Aurrekontuaren egokitasuna, elkarteak edo entitateak bere gain hartzen dituen kostuak eta finantzatzeko bideak. * Euskararen erabilera programetan edo jardueretan. * Bertako albisten zabalkundea. * Entitateak udalarekin lankidetzan jardutea, udalak gizarte, kultura eta kirol arloan

egiten duen esku hartzean. *Genero ikuspegia txertatzea.* Udalak egiten ez dituen jarduerak izatea. * Eskualdean begiralerik ez egotea. * Goi mailako kirolarientzako laguntzetan, foru araudian kirol lorpenei buruz xedatutakoa aplikatuko da.

Beketarako:

- Hezkuntza proiektua. * Proiektuaren iraupena. *Ikastaroa ematen duen entitatea.* genero ikuspegia txertatzea.

6. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Hauek dira onuradunen betebeharrak:

- Dirulaguntza ematearen funtsa den helburua betetzea, proiektua egitea, jarduera gauzatzea edo portaera izatea. * Dirulaguntza ematen duen organoaren edo, hala badagokio, entitate laguntzailearen aurrean justifikatzea dirulaguntza jaso ahal izateko ezinbesteko betekizunak eta baldintzak bete direla, jarduera egin dela eta helburua lortu dela. * Dirulaguntza ematen duen organoak edo, hala badagokio, entitate laguntzaileak egiten dituen egiaztapen jarduera guztiak onartzea, bai eta kontrol organo eskudunek, estatukoek zein Europakoek, finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeke egiten dituztenak ere; horretarako eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute.

- Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideren bat lortu izana jakinaraztea dirulaguntza ematen duen organoari edo entitate laguntzaileari. * Ebazpen proposamena jakinarazi aurretik, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela frogatzea, hori egiteko eskaera jasoz gero.

- Kontabilitate liburuak, egindako erregistroak eta merkataritzako gainerako agiriak behar bezala ikuskatuta edukitzea, merkataritzako legerian eta onuradunari dagokion arlokoan ezarritakoaren arabera.

- Jasotako laguntzak erabili direla frogatzen duten agiriak edukitzea, agiri elektronikoak barne, zeren eta egiaztatuak eta kontrolatuak izan baitaitezke.

- Diruz lagundutako programa, jarduera, inbertsio edo ekintzetarako finantzaketa jaso izanaren berri ematea jendaurrean. * Dirulaguntza itzuli behar izateko inguruabarretako bat gertatuz gero, jasotako kopurua itzultzea.

Liburu eta liburuxken edizio inprimatuak egiten badira, bi ale entregatu beharko dira udalean gordetzeko.

- Publizitatean Kanpezuko Udalaren logoa jartzea, laguntzaile gisa, jarduera guztietan.

7. artikulua. Zenbatekoa

Dirulaguntzen zenbatekoak kasuan-kasuan diruz laguntzekoa den jardueraren, aurkeztutako eskaeren eta aurrekontu partidaren arabera finkatuko dira:

Kultura arloan:

- Gizarte, kultura eta trebakuntza jarduerak

- Umeentzat eta/edo gazteentzat: hezkuntza, aisia eta/edo aisialdikoak

*Materiala erosteko, arte elkarte amateurrentzat: instrumentu materiala, partiturak; antzerkirako materiala, jantziak, etab.

- Ikuskizunak antolatzeke eta egiteke dirulaguntzak

- Kultura bisitak egiteke laguntzak

- Hirugarren adinekoentzako gizarte bidaiak diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 50 gehienez, 500 euroraino, eta gehienez ere bi proiektutarako eskaera bakoitzeke.

Jardueretarako udal instalazioak (kultura etxea, pilotalekua, kiroldegia, futbol zelaia, igerilekuetako aldagelak, eta abar) erabili baldin badira, emandako dirulaguntzatik 80 euroko zenbatekoa kenduko da erabilitako instalazio bakoitzeko, udalaren lankidetzaren eta ekarpen kontzeptuan.

- Begiraleak edota animatzaileak trebatzeko programetan parte hartzeko bekak edo laguntzak: haurrei, gazteei, hirugarren adinekoei, ... begira, eta albisteen edizio idatziak edo euskarri digitalekoak sustatu eta garatzeko laguntzak: diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 30 gehienez (400 euro gehienez).

Euskara arloan:

- Bekak: bekaren zenbatekoa gehienez ere matrikula kostuaren ehuneko 50 izango da, eskatzen den beka kopuruaren eta aurrekontu partidaren arabera. 200 euro gehienez.

- Herriaz gaindiko proiektuak: diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 50 gehienez, 300 euroraino jarduera bakoitzeko, eta gehienez ere bi proiektutarako eskaera bakoitzeko.

Ekitaldietarako udal instalazioak (pilotalekua, kiroldegia, futbol zelaia, igerilekuetako aldagelak, eta abar) erabili baldin badira, emandako dirulaguntzatik 50 euroko zenbatekoa kenduko da erabilitako instalazio bakoitzeko, udalaren lankidetzaren eta ekarpen kontzeptuan.

Kirol arloan:

- Laguntzak kirol jardueren programetarako: federazio gastuak, arbitroenak, entrenatzaileen kontratazioa, telefonoa, farmazia eta mediku azterketak... gastu horietarako guztietarako, diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 75 gehienez. Kanpoan geratzen dira elkarteen barne funtzionamenduko eta kudeaketako gastuak eta klubari edo elkarteari jarritako zehapenek sortutako federazio gastuak. Ekipamendua erosteko eta joan-etorri gastuetarako (erregaia, ibilgailuen alokairua, etab.), diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 50 gehienez. Kontzeptu hauengatik eman daitezkeen gehieneko dirulaguntza 2.900 euro izango da. Jarduera egiten den bitartean udal instalazioak (pilotalekua, kiroldegia, futbol zelaia, igerilekuetako aldagelak, eta abar) erabiltzekotan, emandako dirulaguntzatik ehuneko 10eko zenbatekoa kenduko da, udalaren lankidetzaren eta ekarpen kontzeptuan.

- Kirol ekitaldiak antolatzeke eta egiteke laguntzak: aurrekontuaren ehuneko 40 gehienez (600 euro gehienez). Kirol ekitaldietarako udal instalazioak (pilotalekua, kiroldegia, futbol zelaia, igerilekuetako aldagelak, eta abar) erabili baldin badira, emandako dirulaguntzatik 100 euroko zenbatekoa kenduko da erabilitako instalazio bakoitzeko, udalaren lankidetzaren eta ekarpen kontzeptuan.

- Oinarrizko kirola sustatzeko laguntzak: 30 euro, kirol talde edo elkartearen inskribatutako eta udalerrian egiten diren kirol jardueretako batean parte hartzen duen udalerriko haur bakoitzeko. Kadete adina gaingiditzen duena ez da eskola kirolaritzat hartuko.

Dirulaguntza gehienez aurrekontuaren ehuneko 40 izango da (600 euro gehienez).

- Goi mailako kirolarientzako laguntzak: federazioaren gastu, entrenatzaileak kontratatzeke gastu eta mediku azterketen gastuetarako, diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 75 gehienez. Ekipamendua erosteko eta joan-etorri gastuetarako, diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 50 gehienez. Kontzeptu hauengatik eman daitezkeen gehieneko dirulaguntza 200 euro izango da.

Betiere, norbere garraibideak erabiltzen badira, joan-etorri gastuak justifikatzeko nahikoa izango da herritik kanpo egindako jardueren egutegi ofizialak aurkeztea.

Ez dira diruz lagunduko ondasun higigarriak eta higiezinak erosteko, konpontzeke eta zaharberritzeke egiten diren gastuak; banku kontuen zor interesak; interesak, errekareruak eta administrazio zein zigor zehapenak; elkarteen barne funtzionamendu eta kudeaketa gastuak; jardueretan erabiltzen diren ondasun kontsumigarriak eta jangarriak; jardueren zabalkundea egiteke publikitate gastuak; elkartearen web orria mantentzekeak; eta udalak eskainitako proiektuen paraleloak, nola eta ez diren udalaren esku hartzearen osagarri.

Baldin eta eskaeren kopurua eta eskatutako dirulaguntzen guztirako zenbatekoa direla-eta dirulaguntzen gehieneko ehunekoak txikitu behar badira aurrekontuan ezarritako partidara doitzeko, txikitzea proportzioan ezarriko da jarduera guztien artean.

8. artikulua. Justifikatzea eta jasotzea

Agiri hauek aurkeztu behar zaizkio udalari dirulaguntza jasotzeko:

Herriaz gaindiko jarduera eta proiektuetarako:

- Eskaera, eredu ofizialaren arabera egina. (III. eranskina)
- Egingako jardueraren memoria, emaitzen indizeak zehaztuta.
- Gastu eta diru sarreraren memoria ekonomikoa.
- Jasotako beste laguntzen zerrenda. (II. eranskina)
- Gastua frogatzen duten fakturak (jatorrizkoak zein fotokopia konpultsatuak); datu hauek eduki behar dituzte: - Data, dirulaguntza eman den urtekoa izango da.– Igorlea edo elkarte igorlea: haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.– Igorlea edo elkarte igorlea: haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ. - Hornitzailearen zigilua edo sinadura. - Gastuaren xedea. - Prezioa (BEZa sartuta dagoen ala ez zehaztuta) eta PFEZaren atxikipena, hala badagokio. Langile gastuak badaude edo elkarteek PFEZaren atxikipena duten fakturak aurkezten badituzte, 190 ereduaren kopia bidaliz egiaztatu beharko dute atxikipenak ordaindu dizkiotela Arabako Foru Aldundiari.
- Aurkeztutako fakturen ordainagiriak.
- Egingako jardueraren publizitatearen frogagiria, zeinetan agertzen den Kanpezuko Udalaren logoa, entitate laguntzaile gisa.

Beketarako:

- Eskaera, eredu ofizialaren arabera egina. (III. eranskina)
- Gutxienez eskolen ehuneko 75era joan izanaren frogagiria eta/edo, hala badagokio, ikastaroa edo ikastaroak gainditu izanaren egiaztagiria, gainditze probak ofizialki egiaztatzen dituzten erakundeek emana; asistentziaren ehuneko ezin bada frogatu, horretarako ezinbesteko arrazoren bat egonik eta dagokion agiriaren bidez egiaztatuz, ikastaroa edo hizkuntza eskakizuna gainditu izana, euskaltegiak edo erakunde eskudunak ziurtatua.
- Jasotako beste laguntzen zerrenda. (II. eranskina)

Era berean, ez dira onartuko justifikazio gastu gisa zerga araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak, PFEZeko (pertsone fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako ordainketei dagokienez.

Dirulaguntzak justifikatzean, justifikatzeko modu gisa erabili ahal izango dira faktura elektronikoak, uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduak, baliabide elektronikoaren, informatikoaren eta telematikoen erabilera arautzen duenak, xedatutakoaren arabera.

Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e eta Ef4ktur motako estandarretara egokitu beharko da haien formatua. Sinadura elektronikoa duen beste edozein agiri aurkeztuz gero, 4/2010 Legeak, urtarrilaren 8ko 8 Errege Dekretuarekin, administrazio elektronikoaren esparruan elkarrengarritasun eskema nazionala arautzen duenarekin, bat etorritik, xedatutako @firma plataformaren bidez egingako ziurtagiriak onartuko dira

Onuradunek oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta zehaztapenak ez betetzeak dirulaguntza errebokatzea ekar dezake, eta emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura aplikatuko da, Kanpezuko Udalaren dirulaguntzen ordenantzan araututakoaren arabera.

Frogagiriak hurrengo urteko urtarrilaren 31ra arte aurkez daitezke.

9. artikulua. Dirulaguntza itzultzea

Ordenantza Orokorreko 12. artikuluan ezarritako kasuetan, jasotako dirulaguntza itzuli egin beharko da, dirulaguntza ordaindu zenetik itzuli beharra ezarri arte sortutako berandutze intereseekin, Dirulaguntzen Lege Orokorrak 38.2 artikuluan adierazitako zenbatekoan.

10. artikulua. Berme neurriak

Dirulaguntza ematen duen organoak nahi dituen administrazio kontrolak eta ikuskapenak egin ahal izango ditu aurkeztutako dokumentazioan adierazitako datuak benetakoak diren eta laguntza jasotzeko betekizunak betetzen diren ala ez egiaztatzeko.

Ikuskatze horretan laguntzeko betebeharra du onuradunak, eskatutako datuak eman beharko ditu eta, hala badagokio, jarduerak egiten diren bulegoetara sarbidea emango du.

11. artikulua. Ordainketa aurreratua eta konturako ordainketak

Organo eskumendunak dirulaguntzen ebazpena ematen duenetik, eta hala eskatzen bada, hogeita hamar eguneko epean, dirulaguntzaren ehuneko 40 ordainduko da, eta gainerako ehuneko 60 justifikazioa aurkeztutakoan.

12. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Laguntza hauek ematea bateragarria da beste edozein dirulaguntza edo laguntza jasotzearekin, salbu eta 1. artikuluko kultura arloan, 7. puntuan, azaltzen den laguntza.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin da inolaz ere izan jardueraren kostua baino handiagoa, bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Onuradunak xede bererako beste dirulaguntza, laguntza publiko, diru sarrera edo baliabideren bat lortzen badu, behartuta dago hori jakinaraztera dirulaguntza eman zion organoari edo entitate laguntzaileari.

Beste laguntzarik jaso ez bada, hori dioen zinpeko aitortpena aurkeztu behar da.

13. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak

Arau-hausteak eta zehapenak dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza Orokorreko 16.etik 18.era bitarteko artikuluetan daude ezarrita.

14. artikulua. Araudi aplikagarria

Oinarri hauetan jaso ez denerako, hauek aplikatuko dira: 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; dirulaguntzen udal ordenantza; eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, aukeran, berraztertze errekurtsua erabakia hartu duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

15. artikulua. Datu pertsonalen babesa

Bat etorri abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalen babesekoak, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, erakunde publikoen jabetzako datu pertsonalen fitxategienak eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzearenak, xedatutakoarekin, deialdi hau izapidetzeko bildutako datu pertsonalak Kanpezuko Udalaren dagokion fitxategian jasoko dira, zeina sartuta baitago Kanpezuko Udalaren datu pertsonalen fitxategien sorrera eta aldaketa arauan.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatze eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko Kanpezuko Udalera jo behar da.

I. eranskina

Dirulaguntza eskaera urterako; arloak:

- KULTURA
 EUSKARA
 KIROLA

.....jaunak/andreak, NAN zk. duenak eta
 herriko kalean bizi denak (posta kodea:; telefonoa:
), (helbide elektronikoa adieraziz gero, jakinarazpen guztiak, ahal dela, bide hori erabilita
 egiteko baimena ematen da)

Hurrengo hauenez:

- Pertsona fisiko gizona / emakumea)
 entitatea / elkarte (helbidea:; telefonoa: faxa:
 helbide elektronikoa:) (adierazi kide kopurua: ___ emakume eta ___
 gizon)

Adierazten du

Arlo hauetako dirulaguntza deialdia ikusita:

- KULTURA EUSKARA KIROLA

Kanpezuko Udalak egin urterako, eta bertan jasotako oinarrien jakitun,

Eskatzen du

Lehenengoa euroko dirulaguntza ematea, gastu hauek finantzatzeko:

Ikastaroa/Jarduera	Aurrekontua	Eskatutako zenbatekoa (7. art.)
.....
.....
.....

Eskatzen den dirulaguntza, guztira: euro

Horretarako, deialdiaren 4. artikuluan adierazten diren agiriak aurkezten ditut, baita horiek
 egiazkoak direla ziurtatu ere.

Bigarrena. Eskaera berrietan edo aldaketak dauden kasuetan dirulaguntza ordaintzeko banku
 kontua adierazi behar da (entitatea, kontu zenbakia (IBAN), titularra eta NANA)

Hirugarrena. Berdintasunaren arloko arauak betez, deklaritzen dut:

Lehenengoa. Ez ordezkutzen dudana entitateak, ez ordezkutzen dudana entitateko gobernu
 edo administrazio organoetako kide diren pertsona fisiko, juridiko zein entitateek egiten dugula
 sexuagatiko zuzeneko eta/edo zeharkako bazterkeria egintzarik, hartzeko edo funtzionatzeko
 prozesuetan, bat etorri Osasunaren Lege Orokorrak 13. artikuluan eta Euskal Autonomia Erki-
 degoko berdintasun Legeak 24(2) artikuluan xedatutakoarekin.

Bigarrena. Ez ni eta ez ordezkutzen dudana entitatea, ez eta sozietate honetako gobernu
 edo administrazio organoetako kide den inor ere dagoela egun penalki edo administratiboki
 zigortuta sexu bazterkeriagatik eta/edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko
 arau-hausteengatik, zeintzuk ezartzen baitira abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekre-
 tuan, gizarte arloko arau-hauste eta zehapenen Legearen testu bateratua onartzen duenean eta
 martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdinta-
 sunerakoaren hamalagarren xedapen gehigarrian (besteak beste, mugatzaile izaerarik gabe):

1. Ez betetzea langileen estatutuak edo aplikatzekoa den hitzarmenak berdintasun planen arloan ezartzen dituzten betebeharrak.
2. Enpresaren alde bakarreko erabakiak, sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako bazterkeria dakartenak ordainsarrietan, lanaldietan, prestakuntzan sustapenean eta lan baldintzetan.
3. Entitatearen erabakiak, berekin dakartenak langileen aldekoa ez den tratua enpresari egingako erreklamazio baten aurrean edo tratu berdintasunaren eta bazterkeriarik ezaren printzipioa bete dadin eskatzeko egintza administratibo edo judicial baten aurrean.
4. Sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako bazterkeria dakarten baldintzak ezartzea enplegurako sarbidean.
5. Sexu jazarpena, enpresa zuzendaritzaren ahalmenak iristen diren esparruan gertatuz gero, edozein delarik ere haren subjektu aktiboa.
6. Sexuagatiko jazarpena, enpresa zuzendaritzaren ahalmenak iristen diren esparruan gertatuz gero, edozein delarik ere haren subjektu aktiboa, baldin eta, enpresaburuak horren berri izanda, galarazteko beharrezko neurriak hartu ez baditu.
7. Berdintasun plana ez egitea edo ez aplikatzea, edo egitea nabarmen bete gabe aurreikusitako terminoak, plan hori egin beharra darion abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, gizarte arloko arau-hauste eta zehapenen Legearen testu bateratua onartzen duenak, 46 bis artikuluko 2. idatz zatian ezarritakotik.

....., ko.....ren

(Hala badagokio, entitate eskatzailearen sinadura eta zigilua)

Kanpezuko Udaleko alkateari.

II. eranskina

..... jaunak/andreak,(r) en ordezkari gisa

Zinpean deklaritzen du:

Erakunde publiko zein pribatuetatik ez dudala jaso inolako dirulaguntzarik ez laguntzarik, Kanpezuko Udalak urtean egindako deialdiaren esparruan diruz laguntzeko eskatu dudan programako jarduerak finantzatzeko, arlo honetan/hauetan:

KULTURA EUSKARA KIROLA

Erakunde publiko edo pribaturen batetik dirulaguntza edo laguntza jaso dudala, Kanpezuko Udalak urtean egindako deialdiaren esparruan diruz laguntzeko eskatu dudan programako jarduerak finantzatzeko, arlo honetan/hauetan:

KULTURA EUSKARA KIROLA

Organismoa	Kontzeptua	Emate data	Zenbatekoa
..... euro
..... euro
..... euro

....., ko.....ren

(Hala badagokio, entitate eskatzailearen sinadura eta zigilua)

III. eranskina

..... urterako dirulaguntzaren justifikazioa. Arloa(k):

KULTURA EUSKARA KIROLA

.....jaunak/andreak, NAN zk. duenak

Hurrengo hau denez:

Pertsona fisikoa

..... entitatea / elkarte

Adierazten du:

Kanpezuko Udalak euroko dirulaguntza eman zidala, urterako dirulaguntza deialdian, arlo honetarako/hauetarako:

KULTURA EUSKARA KIROLA

Horregatik guztiagatik, eskatzen du:

Lehenengoa. Emandako euroko dirulaguntza ordaintzea, gastu hauek aintzat hartuta:

Jarduera

Faktura

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Fakturen zenbatekoa, guztira: euro

Bigarrena. Jarduera horiek egiteko:

Udal instalazioak erabili ditudala (kultura etxea, pilotalekua, kiroldegia, futbol zelaia, igerilekuetako aldagelak, beste batzuk:). Markatu dagokiona.

Ez ditudala erabili udal instalazioak

Hirugarrena. Horretarako, deialdiaren 8. artikuluan adierazten diren agiriak aurkezten ditut.

....., ko.....ren

(Hala badagokio, entitate eskatzailearen sinadura eta zigilua)

Kanpezuko Udaleko alkateari.

Santikurutze Kanpezu, 2017ko martxoaren 7a

Alkatea

IBERNALO BASTERRATXASKO